



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

MAEZTUREN “LIRIKA ETA ERLIJIOA” LANA GERNIKAKO BATZAR ETXERA ITZULI DA

- **Margolari gasteztarraren 9 metroko triptiko monumentalak hainbat hilebetz egon da ikusgai Guggenheim Museoan, “Bilbo eta pintura” erakusketaren barruan, zaharbarritze lanen ostean.**

(Gernikan, 2020ko irailaren 8an). Gustavo de Maezturen (Gasteiz, 1887-Lizarra, Nafarroa, 1947) triptiko monumentalak zazpi hilebetz egon da Bilboko Guggenheim Museoan, “Bilbo eta pintura” erakusketan, eta gaur itzuli da bere jatorrizko lekura: Gernikako Batzar Etxeko Beiratearen Aretora.

Bilbora eroan baino lehen, hiru panelak zaharbarritu ebezan, eta, beraz, Maeztuk obrari emon eutsan jatorrizko kolorea foru hiribilduan ikusteko interes handiagoa sortu da orain bere ohiko lekuan. “Lirika eta Erljioa” izenburua daukan lanak, dramatismo bereziko gertaera historiko bat gogorarazoten dau: “Aintzaren Zapatuko Galernea” izenez ezagutzen dan ekaitza, 1878ko apirilaren 20an Bermeoko berrehun arrantzale baino gehiago hil ebazana.

1922an, sorkuntzarako kezka bultzatuta, Gustavo de Maeztuk sinbolismoz betetako proiektu artistiko handi bat asmau eban, eta haren helburua irailean Gernikan Eusko Ikaskuntzaren Hirugarren Kongresua zala eta ikusgai jartea zan. Teknika artistikoaren menderatzaile bikaina, hiru hilebeteko epean amaitu eban hasiera batean “Tierra vasca” izena euki eban triptiko-erretaulea. Lan horregaz Gustavo de Maeztuk euskal bizitzaren eta jardueren alegoria egin gura eban. Arrantzale batzuk lehorrera heldu ziranean, herritarrek heriotzaren aurrean sentidu eben kommozinoa jaso eban.

Gernikako erakusketea amaituta, azaroan Bilboko Filarmonikako areto nagusian izan zan ikusgai triptikoa. Abenduaren 26an, lagun talde handi batek harpidetza batean parte hartzeko eskatu eutsen Bilboko Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, obra erosi eta «Museoan edo Hiribilduko Etxea» izenekoan jarteko. Azkenik, 1923ko bagilaren 25ean, triptikoa Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregian geratu zan, bigarren solairuko galerietako batean.

Gaur egungo kokalekuan, Gernikako Batzar Etxeko Beiratearen Aretoran, Maezturen margolanagaz batera hainbat objektu historiko dagoz, J.M. Iparragirrerena izan zan gitarrea, “Gernikako Arbola” ospetsua abesteko erabilten ebana, besteak beste. Gaurtik aurrera, Gustavo de Maezturen lan orijinala ikusteko aukerea izango dabe bisitariak. Urte honetan haren orde ez erreplika bat egon da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Lirika eta Erlijioa, 1922

Olioa mihise gainean

300 x 130 cm (ezkerreko panela)

300 x 250 cm (panel zentrala)

300 x 130 cm (eskumako panela)



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

LA OBRA DE MAEZTU “LÍRICA Y RELIGIÓN” VUELVE A LA CASA DE JUNTAS DE GERNIKA

- **El tríptico monumental de 9 metros del pintor vitoriano ha estado expuesto durante meses en el Museo de Guggenheim en el marco de la exposición “Bilbao y la pintura”, tras una completa restauración.**

(Gernika, a 8 de septiembre de 2020). El tríptico monumental de Gustavo de Maeztu (Vitoria-Gasteiz, 1887-Lizarrar-Estella, Navarra, 1947), que ha estado durante siete meses en el Museo Guggenheim de Bilbao en la muestra “Bilbao y la pintura”, ha retornado hoy a su lugar de origen: la Sala de la Vidriera de la Casa de Juntas de Gernika.

Antes de trasladarse a Bilbao, los tres paneles fueron restaurados, por lo que su estancia habitual recobra un interés añadido de poder contemplar en la villa foral el colorido original que Maeztu dio a su obra. “Lírica y Religión”, que así se titula, rememora un episodio histórico de especial dramatismo: la tempestad conocida como la “Galerna del Sábado de Gloria”, que el 20 de abril de 1878 costó la vida a más de doscientos pescadores de Bermeo.

En 1922, la inquietud creativa llevó a Gustavo de Maeztu a idear un ambicioso proyecto artístico lleno de simbolismo que tenía como objeto ser expuesto durante el mes de septiembre en Gernika con motivo del tercer Congreso de Estudios Vascos. Excelente dominador de la técnica artística, en el plazo de tres meses terminó el tríptico-retablo inicialmente titulado “Tierra vasca”. Con esta obra Gustavo de Maeztu pretendía realizar una alegoría de la vida y actividades vascas. Captó la conmoción popular por la muerte a la llegada de unos pescadores a tierra firme.

Terminada la exposición en Gernika, el tríptico fue expuesto, durante el mes de noviembre, en el salón de actos de la Filarmónica de Bilbao. El 26 de diciembre un nutrido grupo de amigos solicitaron al Ayuntamiento de Bilbao y a la Diputación de Bizkaia participar en una suscripción con el fin de adquirir la obra y colocarla en el «museo o Casa de la Villa». Finalmente, el 25 de junio de 1923 el tríptico quedaba ubicado en el Palacio de la Diputación de Bizkaia, en una de las galerías del segundo piso.

En su ubicación actual, la Sala de la Vidriera de la Casa de Juntas Gernika, el cuadro de Maeztu está acompañado de numerosos objetos históricos, como la guitarra que perteneció a J.M Iparragirre con la que cantaba su célebre “Gernikako Arbola”. A partir



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de hoy las personas que visiten el Parlamento de Bizkaia podrán contemplar de nuevo la obra original de Gustavo de Maeztu, que fue sustituida este año por una reproducción.

Lírica y Religión, 1922

Óleo sobre lienzo

300 x 130 cm (panel izquierdo)

300 x 250 cm (panel central)

300 x 130 cm (panel derecho)